



ORIOKOUNDALA

A K T A

Udalbatza eratzeko bilkura

EGUNA: 2011ko ekainaren 11

LEKUA: Udaletxeko udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 08:40 **AMAIERA-ORDUA:** 08:55

BERTARATUTAKO ZINEGOTZI HAUTATUAK:

TALDE POLITIKOA: EAJ-PNV

Jon Redondo Lertxundi
Noemi Ostolaza Arkauz
Angel del Hoyo Bravo
Lourdes Salsamendi Goñi
Eugenio Cotado Iturain
Elena Etxeberria Sedano

**KOALIZIO POLITIKOA: BILDU-EUSKO ALKARTASUNA (EA)/ ALTERNATIBA
ERAIKITZEN (EA-ALTERNATIBA)**

Beñat Solaberrieta Albizu
Jon Agirresarobe Lopetegui
Ekiñe Saizar Larrañaga
Juan Vicente Lasa Karrikaburu
Amaia Dorronsoro Portularrume

HAUTESLEEN TALDEA: ORAIN: ORIOKO AUKERA INDEPENDENTEA

Miriam Uranga Egurza
Jokin Izagirre Zabala

IDAZKARI-KONTU-HARTZAILEA:

Jon Carrera Jauregi



Aztergai zerrenda

- 1.- Adin-mahaia eratzea.
- 2.- Udalbatza eratzea.
- 3.- Alkatea aukeratzea.

Esan-eginak

1.- ADIN-MAHAIA ERATZEA.

Ekainaren 19ko 5/1985 lege organikoaren 195.2 artikulua dioenari jarraituz, zinegotzi-agiriak idazkaritzari eman ondoren, bertaratutako zinegotzietan zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi horiek adin-mahaia osa dezaten, udal idazkariarekin batera. Adin-mahaia, beraz, honela osatuta geratzen da:

- Mahaiburua: Bixente Lasa Carricaburu jauna, 57 urte, zinegotzi hautatu zaharrena.
- Ekiñe Saizar Larrañaga andrea, 23 urte, zinegotzi hautatu gazteena.
- Idazkaria: Jon Carrera Jauregi, bilkura honetako idazkari ere badena.

2.- UDALBATZA ERATZEA.

Adin-mahaiak zinegotzi agiriak aztertu ditu, eta baita eskualdeko hauteskunde batzordeak udaletxera bidalitako ziurtagiriak ere, zinegotzi agiriak eta ziurtagiriak bat datozela frogatzeko.

Horren ondoren, zinegotziek zin egin edo agindu dute zintzo betetzeko dituztela karguari dagozkion obligazioak, Erregeari leial, eta Konstituzioa zaindu eta zainaraziko dutela estatuaren arau nagusitzat.

Horrenbestez, zinegotzi guztien gehiengo osoa bilkuran dagoela, adin-mahaiak eratutzat jo du Udalbatza.

Jarraian, idazkariak kutzako kontaketa agiria Udalak dirutan nahiz baloretan duen balioen ziurtagiriak eta ondarearen inbentarioa aurkeztu dizkio Udalbatzari, zinegotziek azter dezaten.



3.- ALKATEA AUKERATZEA.

Ekainaren 19ko 5/1985 lege organikoaren 196. artikuluari jarraituz, adin-mahaiak alkatea aukeratzeko baldintzak gogorarazi ditu:

— Zinegotzi diren zerrendaburu guztiak dira hautagai.

— Zinegotzi hautatu guztiak dira hautesle.

— Aukeraketa txartel sekretu bidez egingo da.

— Botoen legezko gehiengo absolutua lortzen duen hautagaia izango da hautatua; beraz, gutxienez, 7 boto lortu beharko dira.

— Inork ez badu botazio honetan gehiengo absolutua lortzen, automatikoki aldarrikatuko da alkate boto kopururik handiena lortu duen zerrendako buru den zinegotzi hautatua. Berdinketa gertatuz gero, zozketa bidez erabakiko da.

Informe honen ondoren eta gaiari buruz ditugun aurrekaritan oinarrituz, alkategai izendatzen dira ondoko zinegotzi hautatuak:

— Jon Redondo Lertxundi jauna, EAJ-PNV alderdi politikoko zerrendaburua.

— Beñat Solaberrieta Albizu jauna, BILDU-EA-ALTERNATIBA koalizioko zerrendaburua.

— Miriam Uranga Egurza Andrea, ORAIN hautesleen taldeko zerrendaburua.

Idazkariak txartel zuria ematen dio hautesle bakoitzari, adieraziz bertan jarri behar dituela alkate izateko bere botoa ematen dion zinegotziaren izen-deiturak, eta txartela tolestuta entregatzeko.

Behin txartel guztiak jaso ondoren, botoen kontaketa egiten da eta idazkariak ozen irakurtzen ditu alkate izateko txartel bakoitzean proposatu den zinegotziaren izen-deiturak. Kontaketa emaitza honako hau da:

— Jon Redondo Lertxundi, 6 boto.

— Beñat Solaberrieta Albizu, 7 boto.

Idazkariak bertan daudenei txartel guztiak eta egindako eragiketa aritmetikoa egiaztatzeko aukera ematen die. Ondoren, txartelak puskatu egiten dira.

Botazioaren emaitza ikusita, Beñat Solaberrieta Albizu zinegotzi hautagaia aldarrikatzen da Udal honetako alkate, boto gehien berak lortu dituelako —7 boto, hain zuzen—, legezko gehiengo absolutua osatuz.

Jarraian, Beñat Solaberrieta Albizu zinegotzi hautatuak adierazten du onartu egiten duela Udaleko alkate kargua eta, hauteskunde legeriak ezarritako formularen arabera promesa egin ondoren, karguaren jabetza hartzen du Udalbatzarraren



aurrean. Kargua edukitzeak barnean hartzen ditu indarrean dauden xedapenek ematen dizkieten prerrogatiba, eskubide eta obligazio guztiak.

Ondoren, Idazkariak Udalbatzarrari adierazten dio eta hau jakinaren gainean gelditzen da, zinegotzi hautatuetatik zeintzuk egin duten interesen eta jardueren aitortpena; honako hauek dira:

Jon Redondo Lertxundi
Noemi Ostolaza Arkauz
Angel del Hoyo Bravo
Lourdes Salsamendi Goñi
Eugenio Cotado Iturain
Elena Etxeberria Sedano
Beñat Solaberrieta Albizu
Jon Agirresarobe Lopetegi
Ekiñe Saizar Larrañaga
Juan Vicente Lasa Karrikaburu
Amaia Dorronsoro Portularrume
Miriam Uranga Egurza
Jokin Izagirre Zabala

Era berean, idazkariak honako honen berri ematen dio udalbatzarrari: zinegotzi hautatu guztiek egin dutela dagokien bateraezintasun arrazoien aitortpena.

Jakinazten du, baita ere, aitortpen horiek inskribatuak izan direla horretarako prestatu diren erregistroetan.

Orain arteko alkateak, Jon Redondo Lertxundik, aginte-makila ematen dio Beñat Solaberrieta Albizu alkate berriari eta adierazten dio zortetik onena opa diola ibilbide berrian, beharrezkoa izango baitu eguneroko zereginetan.

Segidan, alkate berriak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du:

Ardura osoz hartzen dut egiteko berria. Arduraz eta konpromisoz. Prest gaude alkatetza erantzukizun osoz hartzeko, eta erantzukizunak errespetua du lehen baldintza.

Errespetua gainontzeko zinegotzietei, udal langileei, eta herritarrei. Eta nola ez, errespetua urtetan egin den lanari: azken legegintzaldiko gestioa herritar askok saritu dute bozketan, baina lan egiteko moduetan aldaketa behar dela bozkatu dute gehienek. Horregatik, enkargua hartu eta guztiontzat eta guztiekin egingo dugu lan. Oriotar guztien alkate izango naiz. Eta oriotarrek izan dezatela hitza nolako herria nahi duten erabakitzerakoan. Elkarrekin eztabaidatuz, parte hartuz eta erabakiz. Herrian txertatutako Udala nahi dugu, herritar aktiboak nahi ditugu, eraikitzaileak eta erabakitzaileak.

Esandakoa demostratzea dagokigu gaurtik aurrera. Udal gobernua elkarrekin bideratzea, alegia. Hiru alderdiak Udalaren motor izatea nahi genuke. Motorrak



ORIOKO UDALA

**Udalbatza eratzeko bilkurako akta
2011/06/11**

eraginda baina herria bera da mugitu behar duena. Motorrak ez du zentzurik zer mugiturik ez badauka.

Horregatik, gazteekin, adineko pertsonekin, kultur eta kirol elkarteekin, herrigintzan eta auzolanean jarduteko prest zaudeten guztiekin egin nahi dugu lan. Guztientzat zabalik izango dira udalaren ateak.

Eskerrik asko!

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA,